PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA

ZERBITZUEN KONTRATUA

Prozedura irekia

Xedea: "EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MIKROENPRESA INDUSTRIALETAN EDO PRODUKTUAREKIN ETA PROZESU INDUSTRIALAREKIN LOTUTAKO ZERBITZUETAN IKT SOLUZIOAK EZARTZEKO AHOLKULARITZA TEKNOLOGIKOKO ZERBITZUA" EMATEA

Espediente-zk.: 2026023 HARMONIZATUA

1. SARRERA ETA TESTUINGURUA

Eraldaketa digitala funtsezko faktore estrategiko gisa sendotu da sistema produktibo aurreratuen lehiakortasuna, produktibitatea eta jasangarritasuna indartzeko, bereziki industria-bokazio nabarmena duten lurraldeetan, hala nola Euskadin. Testuinguru horretan, etorkizuneko **Euskadiren Eraldaketa Digitalerako 2030 Estrategia (EEDE 2030)** erreferentzia-esparru gisa eratuko da, digitalizazioa, trantsizio energetikoa, berrikuntza eta gizarte-kohesioa integratuz modernizazio ekonomikoa sustatzera bideratutako politika publikoak definitzeko eta koordinatzeko.

EEDE 2030en helburua eraldaketa digitala sustatzea da, hazkunde ekonomikoari eta produktibitatearen hobekuntzari laguntzeko eta lurralde- eta gizarte-kohesioa indartzeko. Haren planteamenduak lotura estua du Euskadi 2030 Industria Planarekin, digitalizazioa euskal industria-sarea modernizatzeko ardatz nagusietako bat dela baitio. Esparru estrategiko horren bitartez, teknologia digital aurreratuak hartzea, ekoizpen-prozesuak optimizatzea eta euskal ekonomiaren trakzio-sektoreetan eta sektore emergenteetan soluzio berritzaileak garatzea bultzatzen da.

Era berean, EEDE 2030 Europako 2030erako Hamarkada Digitalaren politiketan txertatzen da; politika horien helburua Europako ekonomiaren eta gizartearen eraldaketa digitala bizkortzea da. Digital Decade Policy Programme programak helburu komunak ezartzen ditu arlo estrategikoetan, hala nola enpresen digitalizazioan, azpiegitura digital seguru eta jasangarrietan, herritarren gaitasun digitaletan eta zerbitzu publikoen eraldaketa digitalean.

Helburu kuantitatiboak ezartzeaz harago, Europako politika digitalak lankidetzarako, jarraipenerako eta finantza-laguntzarako mekanismoak jasotzen ditu, teknologia digitalak hartzea errazteko, Europako subiranotasun teknologikoa indartzeko eta lehiakortasunaren, inklusioaren, segurtasunaren eta jasangarritasunaren printzipioetan oinarritutako eraldaketa digitaleko eredua sustatzeko.

Euskadirentzat, Europako esparru horrekin lerrokatzea funtsezkoa da, bai eraldaketa ekonomiko eta teknologikoaren ondoriozko erronkei heltzeko, bai Europako finantzaketa- eta berrikuntza-tresnetarako sarbidea maximizatzeko. Ildo horretan, EEDE 2030 tresna estrategikoa da, eskualdeko lehentasunak garapen digitalerako Europako helburuekin lotzeko aukera ematen duena.

Testuinguru horretan, profesionalen gaitasun digitalak funtsezko elementua dira enpresek sortzen ari diren teknologiak eraginkortasunez har ditzaten sustatzeko. Gaitasun digitalak indartzea, bai eskaintza teknologikotik, bai eskari teknologikotik abiatuta, erabakigarria da adimen artifiziala, zibersegurtasuna edo datuen analitika bezalako teknologiak txertatzea sustatzeko, eta, horrela, eraldaketa digitaleko prozesu eraginkorragoak eta jasangarriagoak errazteko.

Helburu horrekin, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak, SPRI Taldearen bidez, **Mikroenpresa Digitala Inplantalariak** ekimena sustatzen du. Doako aholkularitza teknologikoko zerbitzu pertsonalizatua da, Euskadiko mikroenpresa industrialei eta produktu-prozesu industrialei lotutako zerbitzuei zuzendua. Haren helburua da kolektibo horren lehiakortasuna eta produktibitatea hobetzen lagunduko duten irtenbide digitalak modu eraginkorrean ezartzea erraztea. 2025ean zehar,

pertsona autonomoak eta ekintzaileak ere barnean hartzen zituena, zerbitzuak 124 tailer egin zituen, 621 banakako aholkularitza eskaini zituen eta 10.482 IKT soluzioren ezarpena sustatu zuen.
Informazio gehiago hemen: https://www.spri.eus/laguntzak/mikroenpresadigitala-inplantalariak/

Gainera, gaitasun digitalaren arloan, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak, SPRIren bidez, beste hainbat ekimen sustatzen ditu, eta zerbitzu honek ekimen horiekin lerrokatze estrategikoa izan eta horien barruan txertatzea du helburu. Ekimen horiek jarraian adierazten dira:

Mikoenpresa Digitala Prestakuntza: Euskadiko mikroenpresei, autonomoei eta ekintzaileei zuzendutako gaitasun digitalerako zerbitzua da. Doako 2 orduko tailerren bidez eskaintzen da, eta enpresen lehiakortasuna eta negozioen digitalizazioa hobetzen laguntzen duten teknologia eta tresna digitaletan espezializatuta dago.
https://www.spri.eus/es/ayudas/mikroenpresadigitala-prestakuntza/

ENPRESA DIGITALA: SPRIren eta Eusko Jaurlaritzaren ekimena da, euskal enpresen lehiakortasuna sustatzera bideratua, teknologia digitalen adopzioaren bidez, eta, aldi berean, Interneten eta IKTetan oinarritutako negozio berrien garapena bultzatuz. Mikroenpresa Digitala Prestakuntzarekin alderatuta, Enpresa Digitala ekimenak irismen zabalagoa du, eta euskal enpresa-ehunari, oro har, zuzenduta dago; besteak beste, ETEak, profesionalak eta ekintzaileak barne hartzen ditu, eta prestakuntza, zabalkundea, laguntza eta eraldaketa digitaleko proiektuen garapenerako babesa uztartzen ditu. SPRIko Eraldaketa Digitaleko Sailaren zerbitzu-zorroaren testuinguruan, euskal enpresak eraldaketa digitalean gaitzeko eta sentsibilizatzeko programa gisa deskriba daiteke.

https://www.spri.eus/digitalizazioa/spri-enpresa-digitala/

2. KONTRATAZIOAREN HELBURUA

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak (aurrerantzean, "**SPRI**"), Eraldaketa Digitaleko sailaren bidez, "MIKROENPRESA INDUSTRIALETAN EDO PRODUKTUAREKIN ETA PROZESU INDUSTRIALAREKIN LOTUTAKO ZERBITZUETAN IKT SOLUZIOAK EZARTZEKO AHOLKULARITZA TEKNOLOGIKOKO ZERBITZUA" kontratatu behar du. Zerbitzu horrek barne hartzen ditu Preskripzio Teknikoen Plegu honen hurrengo atalean zehazten diren lanak.

Ekimenaren helburua da Teknologia Digital Aurreratuen transferentzia bizkortzea EAEko mikroenpresen ehunera, Adimen Artifiziala, Zibersegurtasuna eta sortzen ari diren beste teknologia digital batzuk lehenetsiz. Horretarako, haien egoera aztertuko da, haien beharrak identifikatuko dira eta teknologiak haien gaitasunetara eta eskakizunetara egokitzeko prozesuan laguntza emango zaie, preskripzio teknikoen pleguan jasotakoaren arabera.

Kontratuaren xede diren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egingo dira.

3. EGINGO DIREN JARDUEREN HELBURUAK ETA DESKRIBAPENA

3.1 Helburuak

INPLANTALARIAK ekimenak helburu hauek ditu:

- IKT soluzioak modu proaktiboan eramatea horiek behar dituztenei, betiere, pertsona ezartzaileari esker. Hark, aholkularitza jasoko duen enpresari bisita (presentziala edo birtuala) egin ostean, bere behar zehatzak kontuan hartuta egokienak diren soluzioak instalatuko dizkio eta, gero, hasierako aldian, erabiltzeko garaian, laguntza eman. Horren helburua da negozioaren egunerokoan benetan integratu ahal izatea lehiakortasuna hobetuko duten IKT soluzioak behin betikoz EZARRI bitartean.
- IKT soluzioak mikroenpresei gerturatzea, IKT soluzioen onlineko KATALOGOAN edo zerbitzuaren xede diren negozioen behar eta gaitasunak estaltzera zuzendutako kudeaketako aplikazio multzoan sartuta. Horiek guztiak mantentzea eta bilakaera izatea, mikroenpresen egiturak dituen joeren eta beharren arabera etengabe identifikatuz eta egokituz.
- IKT soluzioek negozioan dituzten onuren inguruko sentsibilizazioa bultzatzea SPRI Taldearen webgunean eskuragarri dagoen INFORMAZIOAREN bidez.
- Negozioetatik, enpresa-elkarteetatik eta antzekoetatik gertu dauden tarteko eragileen ezagutza gehitzea mikrosektoreek dituzten arazoen eta beharren inguruan, eta DIFUSIORAKO duten boterea erabiltzea mikroenpresak ekintzara bultzatzeko.

3.2 Garatu beharreko jarduerak eta zerbitzuaren deskribapena

Oro har, lehiaketa honen helburu den EAEko mikroenpresa industrialen kudeaketako aplikazio sinpleak ezartzeko aholkularitza teknologiko pertsonalizatuko zerbitzuaren oinarria honako hau da: SPRIk mikroenpresaren esku jartzen duen katalogoko IKT soluzioak egokitzeko eskaintzen den arreta presentziala edo telematikoa ematea. Gainera, bertan ematen dira aplikazio horiek ahalik eta modu egokienean erabiltzeko jardunbideak, eta gero sor daitezkeen zalantza eta kontsultak argitzeko laguntza eta asistentzia. Hala, IKTak modu errealean txertatuko direla bermatu ahal izango da.

Horrenbestez, SPRIren webgunean eskuragarri dagoen eskaera-formularioaren bidez interesa agertzen duten Euskadiko mikroenpresa industrialei laguntza teknologiko pertsonalizatua eskaintzea da kontratuaren xedea.

Lizitazio honen xede den kontratuaren esleipendunak honako jarduera hauek egin beharko ditu bereziki:

- Mikroenpresei zuzendutako programa-zerbitzuan **izena emateko, hedatzeko eta kaptaziorako** prozesua babestea. Kasu horretan, 10 langile baino gutxiagoko enpresak lehenetsiko dira eta helbide honetan bete beharko da online eskuragarri dagoen aholkularitza-eskaeraren orria (galdetegiaren formularioa): https://www.spri.eus/mikroenpresadigitala/agenda/eu/asesoramiento/. Aipatutako

formularioak mikroenpresa bere IKT mailaren arabera kokatzen du eta Teknologia Berrien erabileraren inguruko aurreikuspenak jasotzen ditu.

- "Inplantalari" aholkulari teknologiko neutralak edo pertsonak **hasierako harremana** izango du mikroenpresa parte-hartzailearekin. Hau da, zerbitzua bideratuko duen pertsonak harremana izango du izena emandako mikroenpresa aztertzen betetako formularioan eskuragarri dagoen informazioa aintzat hartuta. Telefono / bideokonferentzia bidezko harremana eskatzailearen beharrak hobeto ezagutu eta, kasu jakin hori aintzat hartuta, katalogoko IKT soluzioen pakete egokiena aukeratu ahal izateko. Hala, ezarpena modu presentzialean egiteko modua adostuko dute.
- **Pertsona ezartzaileak IKT soluzio guztiak** modu erraz eta arinean **aholkatu eta ezarriko ditu** enpresan**.** Aholkularitza **banaka edo tailer teknologiko moduan** egin daiteke tarteko elkarteen edo eragileen instalazioetan, hala eskatuz gero beren bazkideentzat. Ezartzeko azken modalitate horren kasuan, tailer teknologiko tematikoak egin daitezke parte-hartzaileen oso talde txikitan. Horretarako, tailer bakoitzeko bost mikroenpresako beharrezko kopurua ezartzen da, horrek erabilgarritasun praktikoa izatea ahalbidetuko baitu SPRIk parte-hartzaileen esku jartzen dituen gailuak planteatuta eta optimizatuta. Tailer teknologikoak gutxienez 2 aholkularik eskaini beharko dituzte parte hartuko duen mikroenpresa kopurua 5 edo 6 lagunekoa denean, edo 3 aholkularik parte-hartzaile kopurua handiagoa denean. Tailerrak eta aholkularitza presentzialak edo bideokonferentzia bidezkoak izan daitezke (hori egiteko edozein tresnaren bidez).

Labur-labur azalduta, honako hau da erabili beharreko prozesua eta zerbitzu-taldeko kideek erabili beharreko euskarriak izena emateko unetik hasi eta ezarpena egiten denera arte:

- **Izen-ematea:** parte hartzeko interesa duen enpresak SPRIren webguneko formulario bidez eman beharko du izena. Material lagungarria: webeko edukia, izena emateko formularioa eta datuen ustiapena.
- **Harrera eta azterketa:** ezarpena egingo duen taldeak sarbidea izango du informazio-sistemako izen-emateen informaziora (bertan jasotzen dira enpresa-bezeroen eskaeren datuak) eta "Inplantalariak" taldeko esleitutako pertsonak informazioa aztertu beharko du.
- **Alderaketa eta xehetasunak:** enpresa eskatzailearekin telefono bidez jarriko da harremanetan jasotako informazioa baieztatzeko, zehazteko eta zabaltzeko (izen-emate galdetegiko datuetara sarbidea). IKTetan barneratzeko bide horretan enpresaren abiapuntuko egoera zein den jasoko du. Hizketaldiko emaitzaren arabera, ezarpen egokiena identifikatu eta egoera (soluzioak) hautatuko dira. Horrez gain, Mikroenpresa Digitala Prestakuntzak emandako ikastaroen artean, bere egoerarako egokiena den ikastaroari buruzko informazioa ematen da eta, hala badagokio, gomendatzen da (https://www.spri.eus/es/ayudas/mikroenpresadigitala-prestakuntza/). Material osagarria: Argudioak - Egoera aukeratzeko gidoia.
- Identifikatutako **soluzioak** eskatzailearen arabera egokituta **prestatuko dira** (gero instalatuta utziko zaion tresna zuzenean egokituta edo egoera berean dauden beste enpresa batzuetako adibideak bilatuta, lortutako emaitza erakutsi ahal izateko). Egokitzat joz gero, bisitaren/bileraren aurretik, eskatzaileari aurretik informazioa edo prestaketa egitea eskatzen zaio.

- **Ezarpena** in situ edo modu birtualean egitea: data adostu eta enpresarekin bilera egiten da. Jarraian, prestatutako irtenbideak ezartzen dira (aholkularitza eta instalazioa). Bisitaren eta ezarpenaren inguruko emaitza jasotzen da (benetan ezarritako soluzioak). Emaitzak ezarpenaren erregistroko SIan erregistratzen dira.

- Bisitaren ostean, ezarritako IKTen etengabeko erabilerari buruzko **tutorial osagarria** edo ezarpenarekin lotutako aholkularitza-gidoia prestatu eta bidaliko zaio enpresari.
- **Laguntza ezartzeko garaian (zalantzak argitzea).** Ezarritako irtenbide bat erabiltzeko garaian, erabiltzaileak zalantzak edo arazoak topa ditzake. Horretarako, aholkulariak zalantzak argitzeko laguntza-euskarria emango dio.
- Mikroenpresari **jarraipen etengabea** 2 hilabetez hamabostean behin deiak eginda IKTen erabilera sustatzeko eta negozioaren egunerokoan integratzeko.
- Jasotako ezarpen-zerbitzuarekiko asebetetze mailari eta IKT soluzioen erabilera mailari buruzko **ebaluazioa**.

3.3 Zerbitzuaren dimentsionamendua

Informazio gisa, egitasmoaren azken urteko daturik esanguratsuenak azalduko ditugu dokumentu honetan. Esleipendunak SPRIk eta enpresek eskatzen dizkioten irtenbide guztiak ezartzeko betebeharra izango du eta estimazio horiek ez dira lotesleak izango kontratuaren exekuzioan. Horretarako gehieneko muga kontratuaren bolumena izango da betiere.

2025ean zehar, Mikroenpresa Digitala Inplantalariak zerbitzuaren adierazleak honako hauek izan dira:

• Emandako tailer kopurua: 124

• Egindako banakako aholkularitzen kopurua: 621

• Tailerretara joandakoen kopurua 700

• Ezarritako IKT soluzio kopurua 10482

Aholkularitzarako proposatutako pertsonek bezero bakoitzari eskainitako aholkularitzan egindako dedikazioen hileroko deskargua egin beharko dute. Horrekin lotuta, enpresa eskatzaile bakoitzak behar izan dituen dedikazio-orduak idatziz jaso beharko ditu. Enpresa bakoitzari eskainitako dedikazioa desberdina izan daiteke bezero bakoitzaren errekerimenduen eta kasu bakoitzerako gomendatutako IKTak erabiltzen dituzten pertsonen maila teknologikoaren arabera. Datu orientagarri gisa, dedikazio hori bezero bakoitzeko 8 ordukoa izan daiteke batez beste. Dena den, baliteke kasu batzuetan 3-4 orduko dedikazioarekin IKT batzuk ezartzearekin lotutako aholkularitza eman ahal izatea edo industria sektoreko beste enpresa batzuetan kasuan, 10 langile baino zertxobait gehiago dituztenean, baliteke dedikazio handiagoa behar izatea. Kasu horietan, adibidez, baliteke 8, 16 edo 24 ordu baino gehiagoko aholkularitza behar izatea. Nolanahi ere, SPRIk bileren bidez kontrolatuko ditu dedikazioak, zerbitzua IKTak erabiltzeko aholkularitza mugatu eta puntualera egokitzen dela bermatzeko.

4. ENTREGAGAIAK ETA KOORDINAZIOA SPRIrekin

Kontratazio honen barruan, SPRIk entregagai batzuk beharko ditu proiektuaren helburuak betetzen direla bermatzeko. Esleipendunak, editatzeko moduko formatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan (kontratistak bere gain hartuko ditu itzulpenaren kalitatearen eta itzulpenaren kostuaren erantzukizuna), gutxienez honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- Ekimenaren barruko jardueraren seihilekoko balantzea, bezeroen gogobetetze-mailaren ebaluazioa barne.
- Urteko balantze bateratua.
- SPRIk, exekuzioaren arabera, aurrekoa baino xehetasun edo garapen handiagoa eskatzen duten beste dokumentu batzuk.
- Bezeroei emango zaizkien zabalkunde-materialak, SPRIren Komunikazio arloak baliozkotutako formatuen arabera.

5. LANTALDEA ETA PROFILAK

Lizitatzaileak proposatutako lantaldeak kontratuaren xedea behar bezala gauzatuko dela bermatu beharko du, giza baliabideak eta baliabide materialak behar bezala antolatuz, baita langileak ere, EIKTen erabilerari buruzko aholkularitzan urteetako lan-esperientziak egiaztatuta eta SPRIk behar duen zerbitzu honetan frogatutako esperientzia dutela, eta beharrezko baliabide teknikoak eskainiz.

Proposatutako taldea gutxienez honako pertsona hauek osatuko dute:

- 1 Zerbitzuaren zuzendaritza eta koordinazioa
- 5 Aholkulari teknikari laguntzailea (inplantalariak)

➢ (1) Zerbitzuaren zuzendaritza eta koordinazioa

Enpresa esleipendunak proiektu-zuzendari gisa jardungo duen pertsona bat izendatu beharko du gutxienez, eta hura izango da zerbitzuen arduradun nagusia, eta solaskide bakarra SPRIko kontratuaren arduradunarekin. Horretarako, pertsona bat edo gehiago proposatu eta identifikatu ahal izango ditu «koordinatzaile» gisa; pertsona horiek, ezarpenak egiteaz gain, bakoitzak 3 edo 4 aholkulariz osatutako talde bat koordinatuko dute.

Honako hauek egiaztatu beharko ditu:

- Lizentziatura edo gradu titulazio ofizial akademikoa.
- Gutxienez 8 urteko esperientzia profesionala Konpetentzia digitalen gaikuntzaren arloan.
- Kontratu honen xedearen antzeko izaera duten proiektuetan parte-hartze garrantzitsua. Esperientzia diziplina anitzeko taldeen koordinazioan eta erakunde publikoekin elkarrizketan.

Funtzio nagusiak:

- Zerbitzuaren zuzendaritza tekniko orokorra.
- SPRIrekiko elkarrizketa arrunta.
- Adierazleen jarraipena.
- Entregagaiak gainbegiratzea eta barne-baliozkotzea.
- Kontratuari atxikitako taldea koordinatzea.
- Laneko fluxuak definitzea: hedapena, plangintza, ematea, ebaluazioa eta abar.
- Kalitatearen gainbegiratzea eta iragazketa, eta etengabeko hobekuntza.
- Lankidetzan aritzen diren eragileekin koordinatzea (elkarteak, garapen-agentziak, etab.).
- IKT aplikazioen erabilerari buruzko tailer praktikoak emango dituzten guneen kudeaketa eta erreserba, haiek presentzialak direnean.
- Ezarritako helburuen betetze mailaren inguruko aldizkako ebaluazioa egitea SPRIren zerbitzuko arduradunarekin batera.

Kontratua behar bezala gainbegiratzeko eta ezartzen diren jarraipen-bileretara joateko behar besteko prestasuna bermatu beharko du lan-ordutegietan.

➢ (5) Aholkulari teknikari laguntzailea (inplantalariak)

Honako hauek egiaztatu beharko ditu:

- IKTen arloko lizentziatura-, graduko edo goi-mailako LHko titulazio akademiko ofiziala.
- Gutxienez 3 urteko lan-esperientzia teknologia ETEetan ezartzen.
- Dinamizatzeko eta prestakuntza emateko gaitasuna.
- SPRIren mikroenpresentzako IKT Soluzioen katalogoan jasotako tresnei buruzko ezagutza espezifikoa.
- Profil horretako bi pertsonek behintzat zerbitzua euskaraz emateko aukera izan beharko dute, eta, horretarako, euskarazko C1 maila edo baliokidea baduela egiaztatu beharko dute.

Funtzio nagusiak:

- Beharrezko teknologien inguruko aholkularitza eta ezarpena.
- Teknologia digitalekin lotutako prestakuntza eta sentsibilizazioa.
- Tailerrak egiteko materialak sortzea.

5.1. Baldintza orokorrak

Zerbitzuaren prestaziorako izendatutako langileak kontratistaren mende egongo dira soilik, eta hark izango ditu enplegatzaileari dagozkion eskubideak eta betebeharrak.
Horretarako, enpresa kontratistak betebehar hauek onartuko ditu:

- Kontratista izango den erakundeari dagokio soilik kontratua gauzatzeko izendatutako lantaldeko langileak hautatzea, betiere plegu honetako hurrengo klausulan eskatzen diren titulazio- eta esperientzia-baldintzak betetzen badituzte. Edonola ere, AKPPn aurreikusitakoaren arabera, Entitate Kontratatzaileak baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko ahalmena izango du.

- Kontratistak lantaldearen egonkortasuna bermatuko du eta aldaketak puntualak eta justifikatutako arrazoiengatik izatea, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatzeko (ordezkatzea justifikatzen duten arrazoiak daudenean). Halaber, AKPPn aurreikusitakoaren arabera, erakunde kontratatzaileari jakinarazi beharko zaio uneoro.

- Kontratistak bere gain hartzen du kontratua gauzatzeaz arduratzen den lantaldeko langileen gainean enpresa orok duen zuzendaritza-ahalmena modu erreal, eraginkor eta jarraituan erabiltzeko betebeharra.

  Zehazki, soldatak negoziatu eta ordainduko ditu, langileei baimenak, lizentziak eta oporrak eman, ordezkapenak zehaztu absentzia edo baja kasuetan, Gizarte Segurantzako lege-

betebeharrak bete, kotizazioak eta prestazioak ordaindu hala dagokionean, laneko arriskuen prebentzioaren arloko lege-betebeharrak bete, diziplinazko ahala gauzatu, baita enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko kontratuzko harremanetik eratorritako eskubideak eta betebeharrak ere.

5.2. Kontratu-atxikipena eta taldearen egonkortasuna

Hitzartutako giza baliabideak lizitatzaileek aurkeztutako proposamenaren parte izango dira, eta, beraz, kontratuaren parte.

Esleipendunak betebehar hauek izango ditu:

- Hitzartutako profilak prestazioaren hasieratik edukitzea.
- Kontratua indarrean dagoen bitartean mantentzea, administrazio-klausula partikularren pleguan aurreikusitakoaren arabera justifikatutako kasuetan izan ezik.
- Zerbitzua behar bezala betetzeko benetan erabilgarri daudela bermatzea, eskainitako baldintzetan eta, nolanahi ere, plegu honetan eta administrazio-klausula partikularren pleguan ezarritakoa betez.

Lantaldearen osaeran aldaketarik izanez gero, aldez aurretik jakinarazi beharko zaio SPRIri, behar bezala justifikatuta, AKPPn aurreikusitakoaren arabera.

Atxikitako profiletako edozein ordezkatuz gero, proposatutako pertsonak hasieran eskainitakoaren baliokidea edo handiagoa den kualifikazioa eta esperientzia egiaztatu beharko ditu, eta SPRIk aldez aurretik baliozkotu beharko du, AKPPn adierazitakoaren arabera.

5.3. SPRIrekiko koordinazioa

Atxikitako taldeak SPRIren Eraldaketa Digitaleko Sailarekin programatzen diren jarraipen-bileretan parte hartzea bermatu beharko du; sail hori SPRIren Industria Sustapen eta Digitalizazio Arloaren barruan dago, eta kontratistaren aldetik izendatutako arduradunak hartuko du parte bileretan.

6. EGIKARITZE BALDINTZA LINGUISTIKOAK

Zerbitzua Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan eta SPRIren hizkuntza-irizpideetan xedatutakoaren arabera eman beharko da. Irizpide horiek esleipendunaren esku jarriko dira.

Oro har, zerbitzua euskaraz eta gaztelaniaz emango da, eta materialak, komunikazioak, formularioak, argitalpenak, interfazeak eta prestakuntza-ekintzak bi hizkuntza ofizialetan eskuragarri egongo direla bermatuko da, SPRIk ezarritako baldintzetan.

Erabiltzaileekiko, hirugarrenekiko edo herritarrekiko harremanetan, solaskideak aukeratuko du komunikazio-hizkuntza, ahozkoa zein idatzizkoa, eta esleipendunak behar diren baliabideak izan beharko ditu une oro euskarazko arreta bermatzeko.